

noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

Ecos

Oiharte sagardotegiak 'Txootx!'-a herriz herri eramango du txotx mugikorraren bidez

Martes, 2 de Julio de 2013 - Actualizado a las 06:23h

Sagardotegietako txotx garai ofiziala amaiturik dagoen arren, badago oraindik aukera sagardo freskoa edateko txiritik. San Joan festak, Sanpedroak, Sanferminak... ate joka ditugun honetan Oiharte sagardotegiak *Txootx!*-a herriz herri, festarik festa eramango du, sagardo naturala herritar guztiei eskura jarritz, txotx mugikorraren bidez. Eta sagardo ekologikoa nahi izanez gero aukera hori ere badago.

Oiharte Sagardotegiak asteburu guztietan irekitzen ditu ateak kupeletatik txotx egin ahal izateko

Baina sagardoari loturiko eskaintza ez da hemen amaitzen. Izan ere, Zeraingo Oiharte sagardotegiak asteburu guztietan irekitzen ditu ateak kupeletatik txotx egin ahal izateko. 30 euroren truke bazkari eder bat egin daiteke bakailoa parrillan edo txuleta eder bat janez. Horrez gain, bisita gidatuak ere eskaitzen ditu larunbat eta igandero goizeko 11.00etan eta 12.30tan, 8 euroren truke. 5 euro talde bateko partaideak izanez gero. Erreserbak egiteko edo informazioa eskatzeko, 686299158 zenbakira deitu daiteke edo sagardotegia@oiharte.com helbidera email bat bidali. Honez gain, Zeraingo herrian ere badago aukera Gazta eta Sagardoaren Mendia ezagutzeko eta Idiazabal gazten kata bat egiteko, edota Burdiaren Meategiak bisitatu ondoren sagardotegian bazkari eder batekin eguna osatzeko.

Oiharte sagardotegiak bertako sagarrarekin egindako kalitatezko sagardo naturala dastatzeko aukera eskaintzen du. Jateko, berriz, sagardotegiko ohiko menua du: bakailao tortila, bakailao frijitua, txuleta, eta postre gisa intxaurreak, Idiazabal gazta eta sagar dultzea. 2006an ireki ziren Oiharteko ateak sagardotegi gisa. Hala ere, aurrez, nekazal turismo bezala garai bateko sukaldeko goxotasunarekin lan ugari egin du.

Oihartek aukera paregabea eskaintzen du lagun talde eta familia-giroan jaki gozoak eta sagardo naturala dastatzeko, urte osoan zehar. Betiere enkarguz, menu eta bazkari eta afari bereziak ematen dituzte taldeentzat (zortzi lagunetik gora), jaki eta edari onenak giro ezin hobean gozatzeko.

Cargando comentarios...



Haz tu comentario

Condiciones de uso

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Noticias de Gipuzkoa se reserva el derecho a eliminarlos.

Escribe tu comentario

introduce tu comentario

ComentariosNúmero de caracteres (500/500)

[Soy usuario registrado](#)

Introduce tus datos.

[Quiero registrarme](#). Sólo tardarás un minuto. El comentario se enviará después de registrarte.

Usuario registrado

Correo electrónico

☐ Recordarme la próxima vez

Contraseña

[¿Olvidaste tu contraseña?](#)

Enviar

¡Hecho!



Recibirás un correo electrónico para confirmar tu registro.

Enseguida te devolveremos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

Publicidad

-
-
-

• © Diario de Noticias-Edición Digital

-
-
-